

**BIZIA TA HERIOTZA  
KOLONBIA-KO SUMENDIEN ALA GIZONEN ESKUETAN?**

KARMEL 1985-4 ia buruturik zegoela, atzo albiste beltz ikaragarria heldu zitzaigun Kolonbia-tik: elurrez zuriturik egon ohi den RUIZ sumendiak okaztaturiko errauts goriaren ondorioz, 20.000 lagun inguru hil direla lokazpean edo lurpean estaliak.

Mende honetan zehar, triskantza handiak sortu dituzten 39 jalgidura (erupzio) izan dira. Atzokoa ikaragarrienetakoa izango zen ezberrik gabe.

Armero hiria lokazpean aienatu da, guztia hilerri bihurturik.

Izadia bere bideari darraio. Bere legeen esanera dabil bihozkabe eta giza-ezjakintasunaren erruki gabe.

Gertakari honek gogoeta ugari eta hamaikatxo galdera sor-

tu ditu gure baitan.

Hainbeste heriotza! Zentzu gabeko heriotzak! Armero aienatu da, desagertu da!

Orain handik eta hemendik agintarien aurkako erasoak hasiko dira, kontuak eskatuz: Zeri begira egon dira politika-gizonak, orain dela hilabete pare bat sumendia garretan eta gori-gori zegoenean? Bero kiskalgarri horrek elurrez estalitako mendietan egin ditzakeen ondorio galgarriak aurrez igarri ezinak ote zirán, bada...? Jakin bai, eta ezin ezer egin? Zergatik ez?

Bibliako lehenengo liburuak erakusten digunez, Jainkoak agindu hau eman zion gizonari: «bete ezazue lurra eta zeuon menpean ezarri». Lurra menperatzea da, ba, gizonaren zeregina, haren programa. Hau da: Jainkoak egindako mundua osotu; krazioa-lanean haren lankide izan. Gaurko teknikaren laguntzaz lurra geroago eta gehiago ezagutu eta menperatzeko inoiz baino abagadune eta aukera hobea dago. Beste aldetik Jainkoak agindu hau ere eman zuen: lurra menperatu bai, baina ez gizonak gizona menpean artzea!

Eta zer gertatzen da? Munduan, bere antzekoak menperatzen egiten dituela gizonak ahaleginik handienak! Hauxe da batez ere Estatuén gosea.

Kolonbian, adibidez, auzitegi nazionala indarrez hartzearen ekintza negargarria gertatu zen astebete lehenago. Ondorioa, 100 ildako edo! Besteei gainea hartu, irabazi, beti nork-nor menperatuko! Hori da gizonen gosea! Buru eta bihotz hortxe, ahaleginak, kezkak gizonen arteko istilu eta auzietan... Bien bitartean elurrez estalitako RUIZ sumendia irakin bizitan! Lurra menperatzen ahaleginak egin beharrean, gizona menperatzeko amorrua!

Bai alperriko dela, hamaikatxo estatutan, hainbeste aipatzen den estatu-legea edo «razón de estado» delakoa; eta behar-beharrezkoa, ostera, taiuzko, arrazoizko estatua! «Sentido de estado» delako esamolde hori bai dela huskeriaren huskeria! Hemen «sentido de estado» barik, zentzuna bear da, ganora piska bat...

Ezin ote zitekeen Armero-ko hondamendi hori galerazi?

Urgorizko eta lokatzezko ibaietan, suzko eta errautsezko euripean, giza zabarkeriaren eta gaitasunik ezaren azpian, gizonaren pekatu eta haundi-gosearen menpean makina batek utzi behar izan du bere bizia!

Ez dago patuari edo halabeharrari errua botatzerik! Galde diezaiozun giza zabarkeriari ea lasai dagoen une honetan; galde diezaiegun hildakoei. Hauen erantzunak Jainkoaren agindua oroteraziko digu: Lurra bai menperatu, baina ez gizona!

Agindu hau bete dadinean, halabeharrak (patuak) garrantzia galduko du eta giza-biziak, ostera, berari dagokion kreazioko goi-maila lortuko du.